

5. art

4.– Honako hauek dira praktiketako tutorearen egitekoak:

- a) Ikastetxeko praktiken koordinatzailearekin eta unibertsitatean praktiken ardura duenarekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin behar den lana koordinatzeko, eta praktiketako ikasleei behar bezalako harrera egingo zaiela ziurtatzea, ikasturtean zehar ezartzen diren aldietan.
- b) Practicumean egin beharreko zereginen inguruan ikasleen autonomia eta erantzukizun-sena bultzatzea.
- c) Hezkuntzaren arloko kultura profesionala sustatzea, hezkuntza berriztatzea eta irakasle-funtzioaren balio gisa erantzukizun eta konpromisoa defendatuko dituenak.
- d) Tutoretzapean duen praktiketako ikasleak egin behar dituen jarduera hezigarri orokorrak ikuskatzea.
- e) Ikasleek egin beharreko praktiketako plan orokorraren barruan berriazko jarduera hezigarriak proposatzea.
- f) Ikasgela-praktikak egiten diren bitartean ikasleari laguntzea eta harekin egotea, kasu bakoitzean erabakiz ikasleak bere zeregina egiteko zer autonomia-maila behar duen.
- g) Praktiken prestakuntza-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunaren ahulgune eta indarguneak jakinaraziz, betiere jardun hori hobetze aldera.
- h) Praktiketako ikaslearen esku jartzea agintzen zaizkion jarduera hezigarriak prestatzeko ikastetxeak dituen baliabideak, bereziki arloko programazioak edo didaktika saileko materiala.
- i) Azken txostena egitea praktiketako ikasleek lortutako konpetentziak ebaluatzeko, tituluaren memoria egiaztatuak onartutako ebaluazio-ereduaren arabera.